

## **Departamentuak IIP programak finkatu ditu lekualdatze-lehiaketan**

Aurtengo lekualdatze-lehiaketako deialdiaren inguruan hainbat puntu salatzen ditugu:

### **Hizkuntza profila duten plazaen aregotzea**

Haur Hezkuntzan 100 plaza inguru, Lehen Hezkuntzan 40 eta Bigarren Hezkuntzan 20 baino gehiago atera dira hizkuntza profilarekin (gehienak ingeleseko C1 eskaerarekin).

Plaza hauek IIP programen eta atal elebidunen finkapena dakarte eta hamarnaka irakasle desplazatuak izango dira. IIP programen moratoria martxan jartzea eta plaza horiek ez eskaintzea eskatu dugu baina ez digute jaramonik egin eta aurrera jarraituko dutela esan digute.

### **37/2014 dekretua aplikatzen dute errekurritua egon arren**

Dekretu hau UPNren Gobernuak inposatu zigun iaz IIP programei sostengu legala emateko. Steilas eta beste sindikatu batzuek errekurritu genuen eta sententziaren zain gaude. Hala eta guztiz ere orain lekualdatze-lehiaketan aplikatzea erabaki dute, irakasleen arteko diskriminazioa ezarriz.

## **El Departamento consolida los programas PAI en el concurso de traslados**

Denunciamos diversos puntos del concurso de traslados de este curso:

### **Aumento significativo de las plazas con perfil de idioma**

Han salido cerca de 100 plazas en Infantil, 40 en Primaria y más de 20 en Secundaria con perfil de idioma extranjero, la mayoría de ellas con requisito de C1 de inglés.

Estas plazas confirman la consolidación de los PAI así como de las secciones bilingües y generan que decenas de docentes sean desplazadas/os a de sus centros. A pesar de que hemos pedido poner en marcha la moratoria de los PAI y que no oferten este tipo de plazas han hecho oídos sordos y nos han confirmado que seguirán adelante.

### **Aplican el decreto 37/2014 a pesar de estar recurrido**

Este "decretazo" fue impuesto por el Gobierno de UPN con el objetivo de dotar de un marco legal a los PAI. Steilas y otros sindicatos los recurrimos y estamos a la espera de la sentencia. A pesar de ello, lo aplican en el concurso de traslados estableciendo una discriminación entre el profesorado.